



AZTERKETAK | 52

2024ko maiatza

**2024ko Nafarroako
aurrekontuaren,
aurrekontu akordioaren
eta erreforma fiskalaren
balorazioa**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

2024ko Nafarroako aurrekontuaren, aurrekontu akordioaren eta erreforma fiskalaren balorazioa

2. or.

1. 2024ko Nafarroako aurrekontuaren eta aurrekontu akordioaren balorazioa 3

1.1. Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko bosgarren akordioa.....	3
1.2. Konpromiso berberak errepikatzen dira urtez urte	3
1.3. Greba Feminista Orokorraren aldarrikapenik ez da jasotzen	4
1.4. Gizarte partaidetzarik gabeko aurrekontua	5
1.5. Arau fiskalek eta erreformari uko egiteak baldintzatutako aurrekontua	5
1.6. Aurrekontua Europako parametroetatik urrun dago	6
1.7. Lan baldintzak sektore publikoan.....	13
1.8. Ondorioak	14

2. 2024ko erreforma fiskalaren azterketa16

2.1. Nafarroako Gobernuaren erreforma fiskalerako proposamena	16
2.2. UPNren gustukoa den erreforma fiskala	16
2.3. Ezkerraren eginkizuna ezin da izan eskuineko politikak bere gain hartzea.....	17
2.4. Zerbitzu publikoen okertzea	17
2.5. Enpresen neurriko fiskalitate bidegabe eta eskasa egonkortu da	18
2.6. Ondorioak.....	21
2.7. ELAren proposamenak	22

Pobretze testuinguru betean gaude. Inflazio altuak, eta bereziki elikagaien prezioen gorakadak eta hipoteken eta alokairuen garestitzeak, izugarri zailtzen ari da familia askoren ekonomia. Gainera, inflazioari aurre egiteko hartutako neurriek (bereziki interes-tasen igoerek) ekonomiaren ahultzea eragiten ari dira, eta horrekin bat egiten ari dira hazkunde ekonomikoaren beherakada eta desazelerazioaren ondorio negatiboak nabaritzen hasi den industria sektorea ere.

Egoera soziala eta sektore publikoaren egoera ere ez dira positiboak. Gogora dezagun pandemiak agerian utzi zuela osasunw publikoaren baliabide falta, 2008ko krisiaz geroztik sektore publikoak jasan dituen murrizketen ondorioz.

Txosten honetan aurrekontua baldintzatzen duten elementuak eta 2024rako aurreikusitako gas-tua aztertuko ditugu.

1. 2024KO NAFARROAKO AURREKONTUAREN ETA AURREKONTU AKORDIOAREN BALORAZIOA

1.1. Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko bosgarren akordioa

2024ko Nafarroako aurrekontua Nafarroako Gobernuaren (PSN, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin) eta EH Bilduren artean adostutako bosgarrena da.

Akordioak konpromiso batzuk jasotzen ditu, eta horien artean dago 4,4 milioi euro bideratzea EH Bilduk zuzenketa fasean proposatutako partidak finantzatzeko. Argi dago hain eragin txikia duen akordio batek ezin duela inolaz ere Gobernuaren aurrekontua sozial bihurtu. Nolanahi ere, gogoratu behar da Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioa ez dela 4,4 milioi eurora mugatzen, aurrekontu osoa onartzea baizik.

Egia esan, Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk 5 aurrekontu onartu izanak ez du balio izan elite ekonomikoen pribilegioak zalantzan jartzeko.

1.2. Konpromiso berberak errepikatzen dira urtez urte

2020tik 5 aurrekontu akordio itxi dituzte Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk. Bost akordioetan errepikatu den gaietako bat azterlanak egiteko konpromisoak dira. Azterlan hauek urtez urte errepikatzen dira, eta batzuetan ez dira egiten ere. Zehazki, 4 gaien inguruan (fiskalitatea, pentsioak, hezkuntza-ratioak eta osasun pribaturako deribazioak) jaso da 12 aldiz azterketak egiteko konpromisoa, baina gaur egun ez da hobekuntzarik zehaztu.

Pentsioen inguruan:

2020an: "... pentsio baxuenak egungo LGSra osatzeak aurrekontuan izango lukeen eraginari buruzko azterlana egitea, lehenik eta behin, eta 1.080 eurokoa bigarren fasean..."

2021ean: "... pentsio baxuenak egungo LGSra osatzeak aurrekontuan izango lukeen eraginari buruzko azterlana egitea, lehenik eta behin, eta 1.080 eurokoa bigarren fasean. ..."

2024an: “lantalde bat sortzea gutxienez 15.120 euroko errenta (hilean 1.080 euro) jasotzeko beharrezko arau aldaketak aztertze”.

4. or.

Fiskalitateari dagokionez:

2021ean: “... zerga-onura guztiak ebaluatuko dituen azterlan edo txosten bat egitea...” (Sozietateen gaineko zerga) .

“...fiskalitate berdearekin lotutako zerga berriak ezartzeko aukerari buruzko azterketa egitea ...”

2022an: “Indarrean dauden bi onura fiskali buruzko txosten juridiko eta tributarioa egitea”(Sozietateen gaineko zerga) .

2023an: “Zerga-onurei buruzko azterlan bat egitea”. (Sozietateen gaineko zerga).

“Gutxieneko tributazioari buruzko erregulazioa aztertzea”. (Sozietateen gaineko zerga).

Ratioak 0-3 zikloan:

2021ean: “Ration jaitsierari buruzko aurreikuspena egitea. “

2022an: “Ration jaitsierari buruzko aurreikuspena egitea. “

Osasunari dagokionez:

2023an: “Pazienteen bideratzeak aztertuko dituen azterketa egitea (...)”.

2024an: “Pazienteen bideratzeak aztertuko dituen azterketa egitea (...)”.

ELAren iritziz, azterlanak egiteko konpromiso hauek honako gai hauetan aurrerapenik ez dela egon ezkutatzeko asmoa dute: pentsioak, fiskalitatea, 0-3 zikloko hezkuntza ratioak edo osasun pribaturako deribazioak.

Azterketa horiez gain, gauza bera gertatzen da beste akordio mota batzuekin. Adibidez, 2020, 2022 eta 2023 urteetako akordioetan honako hau adostu da: “Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du, enplegu eta elkarrizketa sozialeko esparru guztietan, Nafarroako batez besteko errentaren proportzionala izango den LGS bat defendatzeko eta sustatzeko hitzarmen kolektiboetan”. Hau edukirik gabeko beste konpromiso bat da. Hau da, hemen konpromisoa ez da Nafarroako LGS bat ezartzea, defendatzea eta sustatzea baizik. Hain kontzeptu zabalak direnez, ezinezkoa da haien betetze maila neurtzea ere.

ELAk uste du sinatu diren bost aurrekontu akordioetan lantaldeak sortzeko, azterlanak egiteko edo analisiak egiteko erabiltzen den formulak okerreko mezua bidaltzen duela. Hau da, gai hauek berdin jarraitzen dute, baina aurrerakuntzak daudela dirudi. Baina konpromisoa ez da gai horiei irtenbidea ematea, aztertzea baizik.

1.3. Greba Feminista Orokorren aldarrikapenik ez da jasotzen

Euskal Herriko Mugimendu Feministak, ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE, Etxalde, CGT sindikatuekin batera, Greba Feminista Orokorra deitu zuen azaroaren 30ean “Zaintzarako eskubide kolektiboaren alde” lelopean.

ELAK urteak daramatza zaintza sistema publikoa, unibertsala, doakoa, kalitatezkoa eta erantzunkidetasunean oinarritukoa aldarrikatzen, eta mobilizazioak deitu ditu mendekotasuna duten pertsona guztien eskubideak legez bermatzeko.

Egia esan, zainketen eremuan, Nafarroako erakundeek ez dituzte betetzen mendekotasun egoera daudenen zaintza beharrak: adinekoak eta adingabeak zaintzea, kalteberatasun egoeran dauden pertsonak... Sistema pribatizatua dugu, eta, ondorioz, zerbitzuak okerrera egiten du eta lan baldintzak okertu egiten dira. Eta ezin da zerbitzu ona eman lan baldintza eskasetan.

Nafarroako Gobernuak ezin du alde batera utzi bere erantzukizuna egoitzetan, diru publikoaren finantzaturiko sektore pribatizatua delako. Nafarroan 72 egoitza daude, eta horietatik 2 baino ez dira publikoak. Nafarroan pribatizatutako 70 zentroetatik gehienetan (zahar egoitzak eta eguneko zentroak kontuan hartuta), estatu mailako lan hitzarmen batek arautzen ditu bertako 4.500 langile baino gehiagoren lan baldintzak: 1.000 eurotik beherako soldadak dituzten hainbat kategoriatan, hilean asteburu libre bakarra dute, urtean 1.800 orduko lanaldia eta 7 minutu besterik ez dituzte egoiliar bakoitzaren arretarako.

2024ko Aurrekontu Proiektuak ez du aurrerapausorik ematen Greba Feminista Orokorren aldarrikapenetan, ezta Nafarroako egoitzen lehen hitzarmena posible egitea bezain garrantzitsua den zerbaitekin ere.

1.4. Gizarte partaidetzarik gabeko aurrekontua

Nafarroako Gobernuak 2024ko Nafarroako Aurrekontuen Aurreproiektua inolako parte hartze sozialik gabe egin du. Etsigarria da Gobernuak entzuteko duen interes falta, eta are gutxiago parte hartze sozial eta sindikal zabala bermatzeko aurrekontu eta zerga politika finkatzeko. Tamalez, Gobernu guztiek errepikatzen duten praktika da.

1.5. Arau fiskalek eta erreformari uko egiteak baldintzatutako aurrekontua

Diputatuen Kongresuak urtarrilaren 10ean onartu zuen austeritate politiketara itzultzea. Zehazki, 2024an erakunde guztietako gastu publikoaren gehikuntzaren gehienezko muga %2,6koa izatea onartu zen, balio nominaletan. Hala ere, erabaki hau Senatuan blokeatzen ari da PP.

Erakunde guztien gastu publikoaren igoera 2024an %2,6ra, 2025ean %2,7ra eta 2026an %2,8ra mugatzen duen gastu araua onartu da, kopuru horiek guztiak termino nominaletan. Erabaki honek urtero aberastasunaren zati txikiago bat erakundeen eskumenetara bideratzera kondenatzen du. Adibidez, Nafarroako Gobernuaren kasuan, aurrekontua handitzeko muga oso txikia ezartzera behartzen du, Osasunaren, Hezkuntzaren edo Gizarte Zerbitzuen arloetan gizarte premiei aurre egiteko.

Gastu arauari buruzko erabaki hau hartzea eta erreforma fiskala egiteari uko egitea, politika publikoetan murrizketak onartu beharko direla erabakitzea da, batez ere gai sozialetan. Gainera, hemengo erakundeen aurrekontua zenbat hazi daitekeen Madrildik erabakitzen den politiketara itzultzea dakar.

ELAren ustez, onartezina da arau fiskalak itzultzearen alde bozkatu duten indar aurrerakoi edo abertzaleak egotea. Hori da EH Bilduk edo EAJk egin dutena. Izan ere, gobernuaren gehiengo deituriko gainerako indar politikoak bezala, beharrezkoak izan dira neurri hori aurrera eramateko.

Bestalde, eta Kongresuak gastu publikoaren gehieneko muga onartu aurretik, Estatuko Gobernuak, 2023ko abenduaren 12ko Ministro Kontseiluaren Erabakian, defizitaren muga erabaki zuen, Europako Batzordeak 2024an arau fiskalak itzuliko zirela iragarri zuenean. Defizitaren muga hori BPGren %0,3koa da Nafarroarentzat, eta horrek esan nahi du diru sarreren aurreikuspenean 77,1 milioi euro daudela zorpetzetik datozenak.

1.6. Aurrekontua Europako parametroetatik urrun dago

- **Europako MRR funtsen 172,7 milioi euro jasotzen dira**

Nafarroako Gobernuak egindako aurrekontu proiektuak 6.355,4 milioi euroko gastua aurreikusten du 2024rako. Kopuru horrek Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa funts europarren partidak barne hartzen ditu (172,7 milioi euro), Next Generation EU (NGEU) paketearen barruan kokatzen direnak. Horien erregelamenduak ezartzen duenez, ez dira aurrekontu arrunterako erabili behar, aurrekontuaz gaindiko inbertsio gehigarriak egiteko baizik (gehigarritasun printzipioa). Hortaz, balorazio honetan aurrekontuetako partidetatik kendu egin dira, eta behin MRREN partidak kenduta, aurrekontua 6.182,7 milioi eurokoa da.

2024rako aurreikusitako aurrekontua eta MRR funtsak

Guztira	6.355,4
MRR	172,7
Guztira MRR gabe	6.182,7

Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

Horrek esan nahi du 2024an 2023an baino 297,6 milioi euro gehiago gastatzea aurreikusten dela, hau da, %5,1 gehiago.

Nafarroako Gobernuaren gastu publikoa (milioi eurotan eta BPGaren %tan). 2010-2024 (2023 behin betiko aurreikuspena III. hiruhilekorako eta 2024 aurrekontu-proiektua)

2010	2015	2020	2023	2024
3.979,0	3.954,8	4.587,0	5.885,1	6.182,7

Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

- **Zorrek eta itzalpeko bidesariek aurrekontuko 10 eurotik 1 eramaten dituzte**

Baina adierazitako zifra (6.182,7 milioi) ez da gizarte premiak asetzeko eskuragarri dagoen aurrekontua, zenbateko hori zorrek eta itzalpeko bidesariak baldintzatzen baitute. 2024an Nafarroako Gobernuak 533,9 milioi euro (BPGren %2,1) ordainduko ditu zor publikoan. Hau da, aurrekontu osoaren %8,6 zor publikoa eta horren interesak eta gastuak ordaintzeko izango da. 2008tik 2024ra 5.710,7 milioi euro ordainduko dira zor publikoan.

Hala ere, Nafarroaren zor bizia 3.167 milioi eurokoa izan da 2023ko hirugarren hiruhilekoan. 2008tik, Nafarroako zor bizia 868 milioi eurotik 3.167 milioi eurora igaro da, baina zorraren zenbatekorik handiena 2021eko lehen hiruhilekoan erregistratu zen, 3.751 milioi euro.

2024ko Nafarroako aurrekontuaren eta erreforma fiskalaren balorazioa

7. or.

Horri itzalpeko bidesariak gehitu behar zaskio, zor publikoarekin antzekotasun handia duen kanonak baitira. Obra handiak ordaintzeko erabilitako mekanismoa da (Nafarroako Ubidea eta haren 1. fasearen handitzea eta A-21 eta A12 autobideak), obra baten eraikuntza eta finantzaketa enpresa pribatu batek egin eta Gobernuak erabileragatik ordaintzen du. Horrela, administrazioak epe laburreko zorpetzea saihesten du eta kontuak makillatzen ditu, baina epe luzera gastua askoz handiagoa da.

2024rako Aurrekontu Proiektuak 113,8 milioi euroko itzalpeko bidesaria ordaintzea aurreikusten du, 2023ko gastu kontsolidatuan baino 2,2 milioi gehiago. 2008tik 1.270,7 milioi euro gastatuko dira itzalpeko bidesarietan. Gainera, ordaindu beharreko kopuruak gora egiten jarraitzen du urtez urte, Kontuen Ganberak ohartarazi ohi duen bezala.

Zor publikoa eta itzalpeko bidesaria batuz gero, 2024an 647,6 milioi euro gastatuko dira, aurrekontuaren %10,5.

Benetan kezagarria da zor publikoaren bilakaera. 2008tik (itzalpeko bidesariak hasi zirenetik) zorraren eta itzalpeko bidesarien ordainketa %828,6 igo da, eta aurrekontuaren %1,6 izatetik 2024an %10,5 izatera igaro dira.

Azken batean, zor publikoaren gastua eta itzalpeko bidesariak deskontatzen baditugu Nafarroako Gobernuak gizartearen beharrei aurre egiteko darabilen aurrekontua txikiagoa da. 2024an, Nafarroako Gobernuak aurreikusten duen benetako gastua (zorraren ordainketa eta itzalpeko bidesaria kenduta) 4.935 milioi eurokoa da.

Gastu osoa zor publikorik eta itzalpeko bidesaririk gabe (milioi eurotan) 2008-2024

	2008	2010	2015	2020	2023	2024
Zor publikoa	28,2	144,1	414,3	351,9	516,8	533,9
Itzalpeko bidesaria	41,6	43,9	68,2	90,5	111,5	113,8
Guztira	69,7	188,1	482,5	442,4	628,3	647,6
Gastua / aurrekontua	4.402,5	4.301,3	3.965,0	4.587,0	5.885,1	6.182,7
Gastua zorrik eta bidesaririk gabe	4.332,8	4.113,2	3.482,5	4.144,6	5.256,8	5.535,1

Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

- **Aurrekontuak BPGrekiko pisua galtzen du**

Aurrekontuak BPGan duen partaidetzari dagokionez, 2024rako aurreikusitako gastua BPGren %24 da, 2023rako aurreikusitakoa baino 0,7 puntu gutxiago. Hau da, 2024an BPGn 2023an izandako parte-hartze bera mantentzeko, aurrekontua 180 milioi euro handiagoa izan beharko litzateke.

Nafarroako Gobernuko gastu publikoa (milioi eurotan eta BPGaren %an). 2023-2024 (2023ko itxiera aurreikuspena eta 2024ko aurrekontu proiektua)

8. or.

	2023	2024
Aurrekontua BPGarekiko	%24,7	%24,0
BPGaren hazkunde aurreikuspena	%1,9	%1,3

Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

- Estatuari ekarpena %31,7 handitu da**

Estatuari egingo zaion ekarpena aipatu beharra dago. 2024an 837 milioi eurokoa izango dela aurreikusten da. Azpimarratzekoa da azken urtean estatuari egingo zaion ekarpenak izango duen gorakada handia. 2023an 635,5 milioi euro ordaindu ziren, 2024rako aurreikusitakoa baino 201,5 gutxiago, %31,7. Horrela, estatuari egingo zaion ekarpena aurrekontu osoaren %13,5 izango da.

Estatuari egiten zaion ekarpena 5 urtean behin egiten diren negoziazioen arabera kalkulatzen da. Ordainketa guztiz opakua da, inon ez baita zehazten benetan zer ordaintzen ari den eta nola kalkulatu den. Gainera, kontuan izan behar da ekarpen horretan Estatuaren zor publikoaren zati bat ere ordaintzen ari dela, eta, beraz, nafarren zor publikoaren gastua are handiagoa da lehen aipatutako 647,6 milioiak baino.

Ondorioz, zor publikoak, itzaleko bidesariak eta Estatuari egin beharreko ekarpenak erabat baldintzatzen dute Nafarroako aurrekontua.

- Osasunean eta hezkuntzan egindako inbertsioak 950 milioi handiagoa izan beharko luke Europako batez bestekoa berdintzeko**

Osasun Departamentuak 1.462,9 milioi euroko aurrekontua izango du 2024an (MRR funtsak kenduta), aurrekontu proiektuak jasotzen duenaren arabera, 2023ko behin betiko kreditua baino 89,6 milioi gehiago (%3). Aurrekontu hori 2024rako aurreikusitako BPGren %5,7 da, 2023an baino 0,1 puntu gutxiago.

Osasuneko gastua (milioi eurotan eta BPGaren %an) 2010-2024

	2010	2015	2020	2023	2024
Milioi euro	1.036,1	963,8	1.221,7	1.373,3	1.462,9
BPG / %	%5,6	%5,1	%6,0	%5,8	%5,7

Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

Osasun Departamentuaren aurrekontuak pisua galduko du BPGrekiko. Eta hau, itxaron zerrendak oso handiak diren bitartean izango da. Inbertsiorik ezak baliabide material gutxiago eta langile gutxiago izatea eragiten du. Horrez gain, langile gutxiegi daude, batez besteko adin altuarekin eta behin behinekotasun maila onartezinarekin. Egiturazko arazoak dira hauek Osasunbidean. Arreta espezializaturako itxaron zerrendak 2020ko otsailean (pandemia baino lehen) 45 egunekoak ziren batez beste, eta 2023ko abenduan, 64 egunekoak. Itxaroten ari diren pertsonen kopurua 33.763 izatetik 46.556 izatera igaro da aldi horretan.

2024ko Nafarroako aurrekontuaren eta erreforma fiskalaren balorazioa

9. or.

Osasunbideko egoera onartezina da, eta, horren ondorioz, osasun pribatua lekua irabazten ari da Nafarroan. Osasun Departamentuaren aurrekontua %3 hazi da, eta prestazio eta itunen gastua, berriz, %5,5.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua 863,4 milioi eurokoa izango da 2024an (MRR funtsak kenduta). Kopuru horri unibertsitateei dagokien aurrekontua gehitu behar zaio, Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala Departamentuaren mende baitago. Beraz, konparazio homogeneo bat egiteko, beharrezkoa da Hezkuntza Departamenturako aurreikusitako gastuari unibertsitateei dagokien gastua gehitzea (114,7 milioi euro). Horrenbestez, hezkuntzako gastua 987,2 milioi eurokoa izango da 2024an, 2023ko behin betiko kreditua baino 46,2 milioi gehiago, hau da, %5 gehiago.

Gastu hori BPGren %3,9 da, 2023ko behin betiko kreditua baino 0,1 puntu gutxiago. Hezkuntzako gastuaren parte-hartzea BPGrekiko 0,2 puntu handitu da 2010etik, urte horretan murrizketa handiak egin baitziren.


Hezkuntzako gastua (milioi eurotan eta BPGaren %an) 2010-2024

	2010	2015	2020	2023	2024
Milioi euro	668,1	584,5	771,1	932	987,2
BPG / %	%3,6	%3,1	%3,8	%3,9	%3,8

Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuetan oinarrituta

Aurrekontuko bi partida nagusiek (osasuna eta hezkuntza) duten gastu eskasaz ohartzeko, beharrezkoa da Europako herrialdeekin alderaketa egitea. Eurostaten eskura dauden 2021. urteko azken datuen arabera, Nafarroako osasun gastua BPGren %5,8koa izan zen bitartean, Europako batez bestekoa %8koa (2,2 puntu handiagoa) izan zen. Beste ekonomia batzuekin alderatuz gero, aldea askoz handiagoa da. Austrian %10,1koa izan zen, Txekiar Errepublikan %9,8koa eta Alemanian eta Frantzian %9,2koa.

Gastu publikoa osasunean (BPGaren %). 27-EB, 2021




Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren, Nastaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta

Europako batez bestekoarekiko 2,2 puntuko alde horrek 2024ko aurrekontuan 565,8 milioi euroko igoera ekarriko luke, eta horrek osasuneko aurrekontua %38,7 handituko luke. Alde hori askoz handiagoa izango litzateke Alemania edo Frantzia bezalako herrialdeekin alderatuz gero (874,5 milioi euro gehiago, gutxi gorabehera). Datu horiek erakusten dute oso urrun gaudela beste ekonomia aurreratuetatik, eta osasunera bideratzen diren baliabideetatik.

Hezkuntzako gastua modu berean aztertzen badugu, ondorioak berdinak dira. 2021ean, hezkuntzak BPGrekiko zuen pisua %3,3koa izan zen Nafarroan, eta Europako batez bestekoa, berriz, %4,8koa (1,5 puntuko aldea). Ratioa Errumanian eta Irlandan bakarrik izan zen okerragoa. Beste herrialde batzuetan, hala nola Frantzian, %5,2koa izan zen; Belgikan, %6,3koa; eta Islandian, handiena, %7,7koa.

Gastu publikoa hezkuntzan (BPGaren %), 27-EB, 2021



Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren, Nastaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta

Europako batez bestekoarekiko aldea 385,8 milioi eurokoa da hezkuntzan, 2024rako aurreikusitakoa baino %39,1 gehiago. Ikus dezakegunez, bi aurrekontu partida nagusiak (osasuna eta hezkuntza) gutxietsita daude inguruko beste herrialde batzuekin alderatuta. Izan ere, aurrekontuaren bi partida nagusiak Europako batez bestekoarekin berdinduko bagenitu, aurrekontua 951,6 milioi euro handitu beharko litzateke.

- **Errenta bermatuaren zenbatekoa %50 baino gehiago handitu beharko litzateke LGSren erreferentzia berreskuratzeko**

Errenta Bermatuan 106,7 milioi euro gastatzea aurreikusten da 2024an, 2023ko aurrekontu bate-ratua baino 8,5 milioi euro gehiago. Bilakaerak erakusten du 2010etik gizarte prestazio honetara bideratutako gastua BPGren %0,12tik %0,41era hazi dela.

2024ko Nafarroako aurrekontuaren eta erreforma fiskalaren balorazioa

Gastua Errenta Bermatuan (milioi eurotan eta BPGaren %an) 2010-2024

2010	2015	2020	2023	2024
30,8	65,8	108,5	98,2	106,7
%0,12	%0,28	%0,53	%0,41	%0,41

11. or.

Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

Hala eta guztiz ere, prestazio honetan egindako murrizketa gogoratu behar da. Aurreko prestazioa (Gizarteratzeko Errenta) ordezkatzeko Errenta Bermatua sortu zenean, LGSri buruzko erreferentzia kendu zen prestazioa kalkulatzeko oinarritzko zenbateko gisa, eta 600 euroko zenbatekoa ezarri zen horren orde.

Horrek esan nahi du azken urteetan LGSk izan duen igoerarekin Errenta Bermatuak gero eta pisu gehiago galtzen duela. 2023an eguneratutako oinarritzko zenbatekoa 716,31 eurokoa izan da, eta LGSa, berriz, 1.080 eurokoa. Bermatutako Errentaren galera, LGStik bereizi zenetik, onartezina da, %50,8 handitu beharko litzateke LGSa berdintzeko.

Errenta Bermatuaren oinarritzko zenbatekoaren (pertsone bakarreko unitate familiarrentzat) eta LGSren bilakaera (eurotan). 2016-2023

	2016	2023
Errenta bermatua	600,0	716,3
LGS	655,2	1.080

Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuko eta BOEtik ateratako datuetan oinarrituta

- Etxebizitzara aurrekontuaren %1,8 baino gutxiago bideratzen da**

Etxebizitzara bideratutako aurrekontuak 113,6 milioi euroko zuzkidura du 2024rako, eta horietatik 46,1 milioi euro MRR funtsei dagozkie (birgaitzeko 2 partidaren artean 35 milioi euro baino gehiago dira). Beraz, aurrekontu arrunta (MRR funtsak kenduta, hauek aurrekontu arrunta ez diren inbertsio gehigarrietara bideratu behar direlako erregelamenduaren arabera) 67,6 milioi eurokoa da. Horrek esan nahi du etxebizitzaren aurrekontu arrunta 9,2 milioi euro txikiagoa izango dela 2023an baino (%12 gutxiago).

Biztanleriaren zati handi batek etxebizitza duin bat eskuratzeko premia larria du. 2024rako aurrekontuak zuzkidura txikia izaten jarraitzen du (nahiz eta MRR funtsak kontuan hartu). Etxebizitza bezalako eskubide unibertsal batek ia ez du lekurik proiektuan.

Horren erakusgarri da aurrekontuaren %0,2 (12,8 milioi euro) bakarrik aurreikusten dela alokairuaren bidez emantzipatzeko laguntzetara (Emanzipa eta David programak) bideratzea. Programa hauek alde aurretik kobratzen diren PFEZaren kenkariak dira, eta horiek eskuratzeko, beharrezkoa da etxebizitzaren alokairu prezioa hilean 675 eurotik beherakoa izatea. Dokumentu hau egiteko unean, Idealistaren webgunean Nafarroa osoan alokairuan zeuden 404 etxebizitzetatik 21ek bakarrik zuten hilean 675 eurotik beherako prezioa (Iruñean 2 baino ez zeuden prezio horren azpitik).

Etxebizitzarako aurrekontua (milioi eurotan)

	2023	2024
Miloi euro (MRR funtsak kenduta)	76,8	67,6
Etxebizitza BPGaren % gisa	%0,32	%0,26

Iturria: Guk geuk egin Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

- **CEN, UGT eta CCOO diru publikoz finantzatzen jarraituko dute**

2024ko Aurrekontu Proiektuak, 2021-2024 Enplegu Planarekin zerikusia duten hainbat partida biltzen ditu, eta hauek, UGT, CCOO eta CEN erakundeentzat diru publiko gehiago ekarriko dute. Hiru erakunde horien aurrekontuen bidezko finantzaketa ez zen gertatzen UPN Nafarroako Gobernutik atera zenetik. 2022ko aurrekontuak elkarrizketa sozialaren finantziazio bide hori berreskuratu zuen, eta aurten berriro errepikatuko da.

Enplegu Planean sartzen diren aurrekontu partida ugarien artean, gehienak Administrazio Publikoak lehendik egiten zituen eta orain Enplegu Planean sartzen diren politiken kudeaketari dagozkio, eta sinatzaileek kudeaketa publikoko botere kuotak irabazi dituzte. Gogoratu behar da Plan honen sinatzaileek propaganda egin izan dutela Plana indarrean egongo den 4 urteetan zehar 700 milioi euro baino gehiago kudeatuko direla esanez. Hau da, plan honek politika publikoak pribatizatzea dakar, hala nola genero ekitatea, laneko siniestralitatea, enplegu politika aktiboak edo enpresei ematen zaizkien dirulaguntza jakin batzuk.

Horrez gain, UGT, CCOO eta CEN finantzatzeko beste partida batzuk ere badaude. Horixe gertatzen da, adibidez, Prebentzioko Lurralde Ordezkararen figurarekin (410.000 euro). Figura hori ezabatu egin zen hitzarmen izendunen eskandaluarekin, eta UGT, CCOO eta CEN sindikatuei 4 milioi euro baino gehiago esleitu zitzaizkien 2008tik, lan istripuak eta lanbide gaixotasunak murrizteko, baino eraginkortasunari buruzko inolako adierazlerik eta emaitzarik ez zen izan.

2024ko Nafarroako aurrekontuaren eta erreforma fiskalaren balorazioa

CEN, UGT eta CCOO finantzatzeko aurrekontuen proiektuan jasotako partidak

Partida	€
Enplegu plan berriaren kudeaketa EP	40.068
Enpresa osasungarriaren bi urtez behingo kongresua EP	30.000
Enplegu Planetik eratorritako ekintzak EP	50.000
CENi emandako dirulaguntza berdintasuna sustatzeko eta dinamizatzeko	100.000
Belaunaldi txandakako laguntza autonomoak EP	120.000
Lankidetzeta-proiektuak Laneko Arriskuen Prebentzioan: Lurralde Ordezkarria EP	410.000
Berdintasun eta Kontziliazio Proiektuak EP	250.000
Ekintza sindikala lan arriskuen prebentzioan EP	400.000
Gizarte eragileei eta enpresa eragileei partaidetzagatik transferentzia	60.010
Guztira	1.460.078

Iturria: Guk geuk egina Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

1.7. Lan baldintzak sektore publikoan

- Administrazioko langileek erosahalmena galtzen jarraitzen dute**

Nafarroako Gobernuak %0,5eko soldata igoera iragarri du bere langile publikoentzat. Igoera hori, 2024an egingo bada ere, 2023ari dagokio. Beraz, langile publikoen soldata %3,5 igo da 2023an. Hala ere, 2022an Nafarroako KPIa %6,4koa izan zela kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak langileek erosahalmena galdu dute 2023an, %2,9 hain zuzen ere.

Erosahalmenaren galera berri horri 2022ko galera gehitu behar zaio, %3,1ekoa. Hortaz, azken bi urteetan metatutako erosahalmenaren galera %6koa da. 2024. urteari dagokion igoera %2koa izango da (KPIari lotutako %0,5eko igoera gehigarria izateko aukerarekin). 2023ko KPIa %2,9an itxi denez, 2024ko urtarrilean erosahalmena %7 inguru galduko da.

Nafarroako Gobernuak Estatuko Gobernuaren ordezkari gisa jokatzeko gisa, eta estatuko Gobernuak, CCOOk eta UGTk 2022ko urrian sinatutako akordioa bete besterik ez du egiten, gai horretan dituen eskumenei muzin eginez.

- Osasunbideko langile sanitarioen eta ez-sanitarioen karrera profesionala ezarri gabe dago oraindik**

2023ko martxoan LABek eta UGTk Nafarroako Gobernuarekin akordio bat sinatu zuten arren (Osasunbidean deituta zegoen greba baino 48 ordu lehenago), karrera profesionala ezarri gabe dago oraindik. Eta horretarako aurrekontu zuzkidurarik ere ez dago 2024ko Nafarroako Aurrekontuen Proiektuan.

Akordio hori zehaztu gabe dagoenez, Administrazioak ez du gaur egun karrera profesionala ezarri. Akordioak hitzez hitz zioenez, hura ezartzea "aurrekontu esleipena egotearen" arabera izango da. Antzeko zerbait gertatzen da maila profesionalen berregituraketarekin, eta horrek ere ez du Osasun Departamentua behartzen, baizik eta gaia Mahai Orokorrean lantzeko konpromisoa jaso zen, besterik ez.

1.8. Ondorioak

1. Zerga erreforma egiteari uko egiteak eta gastu araua berreskuratzeak aurrekontua baldintzatzen dute. Hirugarren legegintzaldia hasi da UPN Nafarroako Gobernutik atera zenetik, baina bere politika fiskalak indarrean jarraitzen du. Aurrekontua defizitari esker egokitzen da. Defizit horrekin batera zerga erreforma bat egiten ez bada diru bilketa handitzeko, progresiboagoa egiteko eta, batez ere, enpresei, enpresa errentei eta kapitalari presio fiskala handitzeko, murrizketak itzuliko dira.
2. Zenbait arlotan, hala nola fiskalitatean, pentsioetan, hezkuntza ratioetan edo osasun pribatura egiten diren bideratzeetan, aurrerapenik ez dagoela ezkutatzeko azterlanak egiteko konpromisoa hartzen dute aurrekontuen akordioan. 2020tik aurrera, errepikatzen diren 12 azterlan egitea adostu dute, inolako aurrerapenik egon gabe.
3. Aurrekontuak pisua galtzen du BPGrekiko. Aurrekontuaren hazkunde nominala gorabehera, 2023an BPGaren ehuneko handiagoa bideratu zen aurrekontu publikora 2024an baino. Horrek esan nahi du Administrazio Publikoak pisua galduko duela ekonomiarekiko.
4. Zorrak baldintzatutako aurrekontua. Aurrekontuko hamar eurotik bat finantza erakundeei eta bankuei bideratuko zaie zorra eta itzalpeko bidesaria ordaintzeko. Gainera, Estatuari egindako ekarpena izugarri handitu da (837 milioi euro, 2023an baino %31,7 gehiago).
5. Ez dira Greba Feminista Orokorraren aldarrikapenak jasotzen. Aurrekontu proiektuak ez du pausorik ematen zaintza sistema publiko, unibertsal, doako, kalitatezko eta erantzunkidetasunean oinarrituko baterantz. Ezta erresidentzietako zerbitzua eta lan baldintzak hobetzeko Nafarroako lehen hitzarmena lortzea bezain beharrezkoa eta funtsezkoa den zerbaitengatik ere.
6. CEN, UGT eta CCOO erakundeek finantzaketa publikoa errepikatzen da. Bake soziala eta Gobernuaren politikak laguntzea, botere kuota eta diru publiko handiagoaren truke aldatzen dute.
7. Partaidetza sozialik eta sindikalik gabe. 2024rako Aurrekontu Proiektua inolako parte hartze sozialik gabe egin da, eta erakunde sozial eta sindikalak aurrekontu politikaren erabaki eremutik kanpo uzteak kalitate eta maila demokratikoa murriztu besterik ez du egiten.
8. 950 milioi euro baino gehiagoko aldea dago osasunean eta hezkuntzan Europarekiko. Osasunbideko itxaron zerrendak izugarri handiak dira, eta Europa mailan Irlandak eta Errumaniak bakarrik egiten dute inbertsio txikiagoa Hezkuntzan. Beste 950 milioi euro beharko lirake osasunean eta hezkuntzan egindako gastua Europar Batasuneko batez bestekoarekin parekatzeko. Testuinguru horretan, Osasun Departamentuaren aurrekontuak eta hezkuntzara bideratutako gastuak BPGrekiko pisua galtzea planteatzen da.
9. Administrazio langileek erosahalmena galtzen jarraituko dute. Gainera, ez da jasotzen Osasunbideko langile guztien (sanitarioen eta ez-sanitarioen) karrera profesionalaren garpena, ezta maila profesionalen berregituraketa ere.

2024ko Nafarroako aurrekontuaren eta erreforma fiskalaren balorazioa

10. Etxebizitzara bideratuko den gastua, aurrekontu osoaren %1,8 baino gutxiago izango da. Gainera, etxebizitzaren aurrekontu arrunta 2023koa baino txikiagoa izango da, zati handi bat MRR funtsetatik datorrelako, eta funts horiek ezin direlako egiturazko aurrekontua finantzatzeko erabili.

15. or.

2. 2024KO ERREFORMA FISKALAREN AZTERKETA

16. or.

2.1. Nafarroako Gobernuaren erreforma fiskalerako proposamena

Abenduaren 21ean Nafarroako Parlamentuan 2024. urterako erreforma fiskala bozkatuko da. Eta erreforma aurrera aterako da Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioari esker.

Nafarroako Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin) joan den azaroaren 8an onartutako proposamenetik sortu da erreforma. Erreforma hau Parlamentura bidali zen, izapidetu eta ondoren onartzeko.

Hauek dira neurri nagusiak:

1. PFEZren tarifaren deflaktazioa. Deflaktazioa %4koa izango da 2023rako eta %3koa 2024rako.

Deflaktazioa PFEZren taulak eguneratzean datza, inflazioak edo ekonomiaren bilakaerak tarte jauzirik eragin ez dezan. Hau da, erreforma bat baino gehiago da eguneraketa da.

2. Gutxieneko pertsonal eta familiarrengatiko kenkariak %3 gehitzea PFEZn 2023rako eta %3 2024rako.

Kenkari honen eginkizuna da PFEZtik kentzeko oinarritzko behar pertsonalak eta familiarrak betetzeko erabiltzen den errentaren zatia kuantifikatzea. Minimo hori handitzea positiboa den arren, ez da nahikoa. Are gehiago prezioak eta interesak izugarri igo direla kontuan hartuta.

3. Etxebizitzaren arloko neurri batzuk, hala nola Nasuvinsaren bidezko egindako errentetan murrizketa %60tik %70era igotzea, edo Emancipa programako alokairuen gehieneko prezioa 650 eurotik 700 eurora igotzea.

Neurri hauek, positiboak izan arren, ez dira aski. Horren erakusgarri da dokumentu hau egiteko unean, Idealista web atarian Iruñean alokatzeko dauden 307 etxebizitzetatik, bat bakarrik dagoela 700 eurotik behera.

Azken finean, neurri gutxi dira eta ez dira nahikoak. Neurri hauen helburua da egungo politika fiskala bere horretan mantentzea, enpresentzako, enpresa errentetarako eta kapitalerako abantailak ikutu gabe. Eta inola ere ez da planteatzen diru-bilketa handitzea.

Neurri hauek ez dira aski Nafarroan dagoen fiskalitate eskasa eta bidegabera zuzentzeko, dokumentu honen 5. atalean ikusten den bezala.

2.2. UPNren gustukoa den erreforma fiskala

Azaroaren 27an, EH Bildu eta UPNk adierazi zuten abstentzioaren bidez Nafarroako Gobernuaren proposamena Parlamentuan onartzea erraztuko zutela.

Zehazki, EH Bilduk akordio bat itxi du Nafarroako Gobernuarekin, 6 zuzenketa sar daitezen abstentzioaren truke, alokairuagatiko kenkariari buruzko zuzenketa, etxeko langileengatiko kenkariak... EH Bilduk onartzen du zuzenketez "ez dakartela funtsezko aldaketarik, egiturazko neurririk ez dutelako", baina haien babesa justifikatzen dute esanez "UPNk ez duela Nafarroako politika fiskala baldintzatzen".

Une horretan, UPNk "oso balorazio positiboa" egin zuen Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioaren edukiaz. Zehazki, Javier Esparzak esan zuen "oso pozik" zegoela akordioarekin, Gobernuaren erreforma fiskala "norabide onean zihoalako eta EH Bilduren zuzenketak garrantzirik gabeak direlako". Are gehiago, UPNren botoa abstentzioa edo aldeko botoa izango zela aurreratu zuen.

Hala ere, PSN eta EH Bilduren artean Iruñeko Udalean itundutako zentsura-mozioaren ondorioz, UPNk bere botoa aldatzea erabaki du eta iragarri du erreforma fiskalaren aurka bozkatuko duela, nahiz eta edukiarekin ados egon.

ELAn 2015etik aurrera (UPN Gobernutik atera zen urtetik) UPNren zerga-sistema bera mantentzen dela salatu dugu. Abenduaren 21ean, PSNk, Geroa Baik, Contigo Zurekin eta EH Bilduren zerga-erreformaren edukia UPNren gustukoa izatea, ELAk salatzen duenaren beste egiaztapen bat da.

2.3. Ezkerraren eginkizuna ezin da izan eskuineko politikak bere gain hartzea

EH Bilduren esanetan, akordio honen bidez UPNk Nafarroako fiskalitatea ez baldintzatzea lortu dute, baina hau ez dator bat akordioa sinatu eta ordu gutxira UPNko lehendakariak akordioaren edukia txalotzearekin. ELAren iritziz, eskuina Gobernutik kanpo izateko helburua inoiz ezin da izan eskuin-politikak bere gain hartzearen kontura izan.

Abenduaren 21ean, gizarte eredia baldintzatzen duen gai batean, Parlamentuko talde ezkertiar eta aurrerakoi guztiek bat egingo dute egungo zerga eredia zalantzan jartzen ez duen erreforma babestuz. Hori berri txarra da gizartea eraldatu nahi duten erakunde guztientzat. ELAk uste du Nafarroako Parlamentuan beste zerga politika mota bat egiteko erreferentzia galtzen dela. Zalantzan jartzen ez bada eta enpresen interesak eta errentarik altuenak babesteko diseinatu den zerga politikaren aurrean alternatibarik planteatzen ez bada, politika alternatibo bati buruzko edozein erreferentzia galtzen da.

Eredu fiskalaren alternatibarik planteatzen ez bada, egungo politika fiskala zalantzan jartzen duen edozein eztabaidarako bidea ixten da.

Zerga-arloko adostasun honen onuradun nagusiak enpresak eta errenta handiak eta kapitalekoak dira, euren interesak babesten dituen zerga sistema izaten jarraituko baitute.

2.4. Zerbitzu publikoen okertzea

Azken asteetan, zerbitzu publikoen okertzea erakusten diren hainbat gertakizun agertu dira, batez ere Osasunbidean (Lizarrako ospitaleko erditze zerbitzua ixtea, Tuterako ospitaleko ZIUa ixtea...).

Egoera hau Nafarroako Gobernuaren eta 2015etik aurrekontu eta erreforma fiskal guztiak onartzen dituzten alderdi politikoen erantzukizuna da.

Zergak erakunde eta erakunde publikoen finantziazio iturri dira. Zergarik gabe, ez dago diru sarrerarik. Eta diru sarrerarik gabe, ez dago gasturik. Beraz, argi dago horren baitan dagoela gastu publikoaren maila eta, beraz, zerbitzu publikoak eta gizarte prestazioak bermatzea. Ez da ahaztu behar zergak, diru bilketa izateaz gain, ezinbesteko eginkizuna dutela aberastasunaren birbanatze bidezkoagoa egiteko tresna gisa, eta hori oso beharrezkoa da gero eta gizarte desberdinago batean.

2.5. Enpresen neurriko fiskalitate bidegabe eta eskasa egonkortu da

18. or.

- **Nafarroako presio fiskala Europako batez bestekoa baino 1.900 milioi euro txikiagoa da**

Presio fiskalak administrazio publikoek biltzen dituzten diru sarreren (zergak, Gizarte Segurantzako kotizazioak eta udaletako diru bilketa barne) eta barne produktu gordinaren (BPG) arteko erlazioa neurtzen du, hau da, ekonomiaren zein zati den administrazio publikoek biltzen dutena adierazten du.

Nafarroan, 2021ean, presio fiskala BPGaren %32,6koa izan da, hau da, Nafarroako ekonomiaren 10 eurotik 3 baino zertxobait gutxiago izan da administrazio publikoek bildutakoa.

Presio fiskal hori handia den ala ez ikusteko, inguruko lurraldeekin alderaketa egin behar da. Batez besteko presio fiskal totala, EB-27an, 2021ean (eskuragarri dagoen azken datua) BPGaren %40,4 izan zen, Nafarroako presio fiskala BPGaren %32,6koa zen bitartean. Hau da, BPGaren 7,8 puntu gutxiago. BPGaren 7,8 puntuko alde horrek esan nahi du 2021ean Nafarroako presio fiskala EB-27ko batez bestekoaren berdina balitz 1.896,4 milioi euro gehiago bilduko liratekeela.

- **Aberastasunaren banaketa gero eta desberdinagoa da**

Langileen esku dagoen ekonomiaren zatia gero eta txikiagoa da Nafarroan, enpresek gero handiagoa duten bitartean. 2022an, soldatapekoen ordainsaria BPGaren %42,9 adinakoa izan da, eta ustiapeneko soberakin gordina, hau da, enpresena, %47,2koa izan da.

Balio horien bilakaerak erakusten du 2005az geroztik (serieko zifra zaharrena) soldatapekoen ordainsaria 2,9 puntu jaitsi dela BPGan, ustiapen-soberakin gordina 4,5 puntu igo den bitartean. Horrek esan nahi du, 2022an soldatapekoen ordainsariak 2005eko partaidetza bera izango balu, 705,1 milioi euro gehiago banatuko liratekeela lanaren errenten artean.

Baina gizartea gero eta desberdinagoa izateko joera ere azken urteotan ari da gertatzen. Izan ere, UPN Nafarroako Gobernutik atera zenetik ere joera horri eutsi zaio. 2015etik aurrera, soldatapekoen ordainsariak BPGaren 0,6 puntu galdu ditu (145,9 milioi euro); ustiapen-soberakin gordina, berriz, BPGaren 0,9 puntu igo da.

Aberastasunaren banaketa (BPGaren %). 2005-2022


	Soldatapekoen ordainsaria	Ustiapeneko soberakin gordina
2005	%45,8	%42,7
2015	%43,5	%46,3
2022	%42,9	%47,2

Iturria: Geuk egina, Nastaten datuetan oinarrituta

- **Diru-bilketaren ia erdiak ez du kontuan hartzen ordaintzen duenaren ahalmen ekonomikoa**

2022an, Nafarroako Gobernuak 4.979,4 milioi euro bildu ditu, BPGaren %20,5. Zerga-motaren arabera (zuzenekoa edo zeharkakoa) aztertzen badugu, ikusiko dugu %53,1 zuzeneko zergei dagokiela (hau da, zergak ordaintzen dituztenen ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen dutenak). Eta %46,3 zeharkako zergetatik dator, hala nola BEZetik edo alkoholaren edo hidrokarburoen gaineko zerga berezietatik. Zerga hauek berdin ordaintzen dira ahalmen ekonomikoa edozein dela ere, hau da, errenta altuenak eta pobrezia mugaren azpitik daudenak berdin ordaintzen dituzte.

Zerga-bilketa Nafarroan, zerga-motaren arabera, 2022



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuetan oinarrituta

- **Laneko errentek enpresek baino 4 aldiz zerga gehiago ordaintzen dituzte**

Zuzeneko zergengatik bildutakoari dagokionez, ahalmen ekonomikoaren arabera ordaintzen direnak, 10 eurotik 6 baino gehiago (%60,3) PFEZak biltzen dituen lan errentetatik dator. Zehazki, lan-errentek 1.597,2 milioi euro ordaindu dituzte 2022an. Gainera, kopuru horri estatuarekin konpentsatzen den lan-etekinen zatia gehitu beharko litzaioke (2022an 303,1 milioi euro konpentsatu dira 2020ko eta 2021eko behin betiko likidazioen eta 2022ko behin-behineko likidazioen lan eta kapital atxikipenengatik).

Aitzitik, Sozietateen gaineko Zergak zuzeneko zergen %15,1 bildu du, 399,3 milioi euro. Hau da, enpresek PFEZn lan errentak baino 4 aldiz gutxiago ordaintzen dute Sozietateen gaineko Zergan.

- **Enpresek Estatuan baino gutxiago ordaintzen dute Nafarroan**

Sozietateen gaineko Zergak 399,3 milioi euro bildu ditu 2022an, hau da, diru-bilketa osoaren %8,1. Diru-bilketa horren ondorioz, zerga horren gaineko presio fiskala BPGaren %1,6koa izan da Nafarroan. 2015etik aurrera, BPGaren 0,5 puntu igo da presio fiskala.

Igoera hori gorabehera, Nafarroako sozietateen gaineko zergaren presio fiskala (%1,6) BPGaren puntu bat txikiagoa da Estatuan baino (%2,6). Are gehiago, 2015etik aurrerako bilakaerak erakusten du aldea 0,8 puntutik puntu 1era igo dela.

Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala (%). 2022


	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Estatua	1,9	1,9	2,0	2,1	1,9	1,3	2,4	2,6
Nafarroa	1,1	1,3	0,9	0,9	1,2	1,3	1,4	1,6

Iturria: Guk egina Nafarroako Ogasunaren, EINen eta Zerga Agentziaren datuetan oinarrituta

Europa mailako konparazioa ere adierazgarria da. Eskura ditugun azken datuen arabera (2020koak), Nafarroa da Sozietateen gaineko Zergaren gainean presio fiskal txikiena duen EB-27ko laugarren lurraldea. Letonia, Hungaria eta Greziak bakarrik dute presio fiskal txikiagoa.

2020an, Nafarroak BPGaren %1,3 bildu zuen Sozietateen gaineko Zergaren bidez, eta EB-27ko batez bestekoa %2,4 izan zen. Nafarroak 218,8 milioi euro gehiago bildu beharko litzuzke zerga honen bidez Europako batez bestekoa berdintzeko. Datu honek erakusten du Sozietateen gaineko Zerga igotzeko tarte handia dagoela.

UE-27 Sozietateen gaineko Zergaren presio fiskala. 2020



Iturria: Geuk egina, Europako Batzordearen, Nafarroako Ogasunaren, Eustaten, EINen eta Zerga Agentziaren datuetan oinarrituta

- **Iruzurra eta enpresek gutxi edo ezer ez ordaintzeko diseinatutako fiskalitatea**

Nafarroako politika fiskalaren beste ezaugarri bat da enpresa-errentek eta enpresek gutxi edo batere ez ordaintzeko diseinatuta dagoela. Tresna asko daude enpresen eta aholkularien esku ordaindu beharrekoa gutxiago izateko.

2024ko Nafarroako aurrekontuaren eta erreforma fiskalaren balorazioa

21. or.

Iruzurra ematen da enpresa errenten aitortpenean. PFEZn aitortutako erren-tei buruzko datuak ez dira sinesgarriak. Hala ikusten da PFEZn jatorri funtzionalaren arabera aitortzen diren errenten analisisian, hau da, aitortzen duen errenta nagusia lanean sortutakoa den edo enpresa-errenta den.

2021ean (eskuragarri dagoen azken datua) lan errentek batez beste 23.227 euro aitortu zituzten, eta enpresa errentek, berriz, 21.723 euro. Ez da sinesgarria, eta enpresa-errenten aitortpenean dagoen zerga-iruzurraren erakusgarria da laneko errentak enpresetakoak baino 1.504 euro handiagoak izatea.

PFEZn aitortutako errenten osagai nagusiaren jatorri funtzionala (€). 2021

Lanaren errentak	Enpresa errentak
23.227	21.723

Iturria: Guk egina Nafarroako Ogasuneko datuetan oinarrituta

Hamar enpresatik seik baino gehiagok galerak dituztela edo mozkinik ez dutela adierazten dute. Sozietateen gaineko zerga lortutako mozkinaren harabera ordaintzen da, eta galerak aitortzen dituzten edo mozkinik ez duten enpresek ez dute ezer ordaintzen. 2021ean, enpresen %65ek adierazi zuten ez zutela etekinik izan edo galerak izan zituztela.

2021eko likidazio oinarriaren aitortpen kopurua

Zero	8.550 (%43,5)
Negatiboa	4.212 (%21,5)
Positiboa	6.868 (%35)
Guztira	19.630

Iturria: Guk egina Nafarroako Ogasuneko datuetan oinarrituta

- **Ondarearen gaineko Zergaren diru bilketa hutsala da**

Nafarroako Ondarearen gaineko Zergaren diru-bilketa 34,9 milioi eurokoa izan da 2022an. Nafarroako biztanleriaren %1i eragiten dion zerga da, ondaren handiena dutenei bakarrik. Zehazki, 2022an 7.158 pertsonak ordaindu behar izan dute zerga hori, eta 60k baino ez dute ordaindu zatirik altuenean.

UPNren garaian baino askoz gutxiago biltzen duen zerga da. 2014. urtean, UPN Nafarroako Gobernutik atera aurreko urtean, Ondarearen gaineko Zergaren diru-bilketa 47,8 milioi eurokoa izan zen, nahiz eta gizarte-justiziak behar lukeena baino askoz txikiagoa izan, 2022an baino 12,9 milioi euro gehiago bildu ziren.

2.6. Ondorioak

- Nafarroako Gobernuari (PSN, Geroa Bai eta Contigo Zurekin) eta EH Bilduri esker aurrera aterako den erreforma fiskalak enpresen neurri-egindako zerga sistema eskasa eta bidegabea egonkortzen du.

- EH Bilduren justifikazioa erreforma fiskalaren alde egiteko UPNk fiskalitatea ez baldintzatzea da. Baina hau ez dator bat UPNk Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioaren edukia positiboki baloratu izanarekin.
- Eskuina Gubernutik kanpo egoteko helburua ezin da eskuin-politikak bere gain hartzearen kontura izan.
- Erreforma fiskalaren onuradun nagusia enpresak eta euren pribilegio guztiak bere horretan mantenduko dituzten errenta handiak eta kapitalekoak dira.
- Zerbitzu publikoak hondatzea (Lizarrako erditze zerbitzua ixtea, Tuteran ZIU ixtea...) Nafarroako Gobernuaren eta urtez urte aurrekontuak onartzen dituzten eta zerga erreforma fiskal sakonik egiten ez duten alderdi politikoen erantzukizuna da.
- Gizarte eredia zehazteko funtsezkoa da politika fiskala. Albiste txarra da Parlamentuko talde ezkertiar eta aurrerakoi guztiak beste politika fiskal bati buruzko eztabaida ez planteatzea eta langile klasearentzat alternatiba bidezkoagoak ez proposatzea.
- ELAk uste du aberastasuna hobeto banatzeko eta baliabide publiko gehiago dituen gizartearen alde egiteko bere ekarpena, besteak beste, egungo politika fiskalaren alternatiba posibleak planteatzea dela. Horixe egiten du politika fiskala aldatzeko mobilizazioak bultzatzen dituen edo indarrean dagoen politika fiskala eta hartzen diren neurriak aztertzen dituen dokumentuak egiten dituenen, eta horiei buruzko proposamenak egitean.

2.7. ELAren proposamenak

ELAk berretsi egiten ditu zerga arloan Nafarroari dagozkion proposamenak. ELAk enpresen mokinengatik, aberastasunagatik eta errenta handiengatik ordaindu beharreko zergak nabarmen igoko dituen erreforma eskatzen du. Zehazki, hauek dira ELAk planteatzen dituen neurri nagusiak:

1. PFEZ

1. Errenta altuetarako zerga tasak %60raino igotzea eta tarte kopurua handitzea.
2. Errenta orokorraren eta kapital errenten arteko tarifaren dualtasuna ezabatzea
3. PFEZren deflaktazioa taulak eguneratzea da, soldata-errealizazioak zerga-tasen eskalan jauzirik eragin ez dezan. ELAk deflaktazio-mekanismo automatiko bat proposatu du, KPIaren arabera.
4. BGAEen eta pentsio-planen tributazioa aldatzea. BGAEetara eta Pentsio Planetara ekarpenak egiten dituzten pertsonak PFEZaren zerga-oinarria murrizten dute, eta horrek zergaren ordainketa murriztea dakar. Hala ere, tresna horiek ez daude pertsona guztien eskura, errenta txikienek ez baitute ekarpen horiek egiteko adina aurrezteko gaitasunik. Horrek erregresibo bihurtzen ditu tresna hauek.

Nolanahi ere, gizarte-kotizazioek eta pentsio publikoek baino tratamendu txarragoa izan behar dute. Eta enplegu-erakundeen tratamendua banakakoena baino hobea izan behar da. Gainera, kapitaleko erreskateari ematen zaion tratu pribilegiatua ezabatu behar da, pentsio-osagarria denaren aurka baitoa.

2. Sozietateen gaineko zerga

1. Ekitaldiko mozkinen gaineko %25eko gutxieneko tasa efektiboa ezartzea, salbuespenik gabe.
2. Kenkariak eta pizgarri fiskalak eta ingeniari-tza fiskala ezabatzea.
3. Mozkinak (eta, beraz, benetako diru-sarrerak eta gastuak) sortzen diren lurraldean aitortzera behartzea.

3. Ondarearen gaineko zerga

1. %1 eta %10 arteko errekar-gu espezifiko-a ezartzea. Ondarearen gaineko zergak aberastasanaren banaketa bidezkoagoa sustatu behar du, ondare handiak dituzten pertsonak zergapetuz. Hala ere, beti zalantzan dagoen zerga da, besteak beste, kapitalak hura ezabatzeko egiten duen presioagatik. Ez da gauza bera gertatzen ondarearen gaineko beste zerga batzuekin, hala nola OHZrekin, herritar gehienei eragiten dielako.
2. Zergaren tarifa bikoiztea. Ez da ahaztu behar ondarearen gaineko zergak ondare handien jabetza edo edukitza zergapetzen duela eta biztanleriaren %1 aberatsenari bakarrik eragiten diola. Milioi bat euro baino gehiagoko ondarea duten pertsonak ordaintzen dute (ohiko etxebizitza kontuan hartu gabe, 250.000 eurora arte salbuetsita dagoena). Nafarroan, 2022an, batez besteko tasa %0,54 izan da.

4. Iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko zuzkidura handitzea

Zerga iruzurraren aurkako borroka funtsezkoa da hainbat argudiori aurka egiteko, hala nola dirurik ez dagoela eta ezin dela diru-bilketa handitu esaten dutenena. ELAk Nafarroako Ogasunari preskripzio aldian soldatakoak ez diren errenta guztiak ikuskatu ahal izateko baliabide nahikoak ematea eskatzen du. Horrek esan nahi du gehienez 4 urteko epean ikuskatuko direla enpresa guztiak, bai eta kapital errentak eta jarduera ekonomikoak ere.

